

GAZTE  
EKOLIDERRAK

kutxa.eus



kutxa  
FUNDAZIOA

2023 · 2024

# Gazte Ekoliderrak

KOLABORATZAILEA



—  
Klima larrialdia eta gizarte krisia denon ahotan daude egun. Etorkizun jasangarria lehen mailako erronka da. Gizartea aktibatzea ezinbestekoa da. Krisi egoera honen aurrean, ikusle ala eragile izan nahi duzu?

—  
**Izan  
Gazte  
Ekolider**


# Egin bidea. Eragin aldaketa.

# Gazte Ekoliderrak

Jasangarritasunean eta eraldaketarako lidergoan oinarritzen den formakuntza eta bizitzarako ibilbidea.

## Helburuak

- 01 Jasangarritasunaren ezagutzan sakondu eta ikuspegi holistikoa landu.
- 02 Lidergo kontzientean konpetentziak landu.
- 03 Ekiteko ahaldundu: ideietatik ekintzetara igarotzea bultzatu.
- 04 Kontzientzia, pentsamendu kritikoa eta komunitatea sustatu.



**Kontzientzia, pentsamendu kritikoa eta enpatia landu.**

## Nola egingo dugu? Ibilbidean zehar hiru dimentsio osagarri landuko dira.

Ikasitakoa praktikara eramateko aukera izango duzu. **Ideietatik errealitatera** pasako gara inguruko eragile eta erakundeen egiazko erronketan parte-hartuz eta proiektuak aurrera eramanez.

Gazteak **jasangarritasunean eta lidergoan** trebatuko zarete. Hilabete bakoitzeko gai bloke bat landuko dugu. Online saio batean testuingurua ezarriko dugu eta hilean 2 saio presentzialetan edukietan sakonduko dugu.

trebatu  
ekin  
izan

Lidergo kontziente batetik **gizarte eragile** bihurtzeko bideari ekingo edo ekiten jarraituko diozu. Izan Ekolidera.

2023 — 24

azaroa — apirila

19

aste

120

ordu

12

saio  
presentzial  
Donostian

3

asteburu  
trinko

8

erronka

## Programaren egitura

Prestakuntzan hainbat esparrutako pertsonak parte hartzen dute: unibertsitatea, erakundeetako ordezkariak, profesionalak, elkarteak, adituak, ekintzaileak, etab.

01

### Aurrez-aurreko saio eta topaketak

- 3 orduko 12 saio presentzial: hitzaldiak, komunitatean eztabaidak, elkarrizketak...
- Egun eta erdiko 3 egonaldi (asteburu)
- Barne lan espazioak eta eragileen lan espazioak ezagutu.

02

### Online saioak

- Gaitegietara sartzeko edukiak
- Hitzaldiak, ariketak eta sakontzeko baliabideak

03

### Banakako lanketa

- Trebakuntzara bideratutako ariketa eta lanketak
- Erronka erantzunaren proiektuaren garapena taldean
- Garapen pertsonalerako hausnarketak



Talde koordinatzaile eta tutoreen jarraipen eta aholkularitza jarraia.





# Programa

## 2023 azaroa — 2024 apirila


BLOKEA	DATAK	ORDUA	NON / NOLA	GAIA	ERAGILEAK	
1 <b>Testuingurua</b> KLIMA LARRIALDIA	AZAROA	7 · asteartea	17:00 — 20:00	Eureka! Zientzia museoa	Aurkezpen ekitaldia. Mahai ingurua: <i>Egin bidea. Eragin aldaketa.</i>	Arantza Acha (Unetxea) / Juan Arizaga (Aranzadi)
		21 · asteartea	17:00 — 20:00		Klima larrialdia: Ikerkuntza, inpaktua, egoera...	Basque Center for Climate Change (BC3)
2 <b>Pertsonak</b> JUSTIZIA SOZIALA Hezkidetzeta, berdintasuna, pobrezia, gosea, osasuna eta ongizatea, hezkuntza	ABENDUA	2 · larunbata 3 · igandea	> 9:00 > 13:30		1. Konbibentzia asteburua. — IZAN lidergoa	Verenna Hammes / Gonbidatuak
		5 · asteartea	17:00 — 20:00	Eureka! Zientzia museoa	Klima, migrazioak eta ongizatea	
		19 · asteartea	17:00 — 20:00	Eureka! Zientzia museoa	Ekofeminismoa	Mirene Begiristain (EHU)
3 <b>Ekonomia</b> KAPITALISMO BERDEA AZTERGAI Governantza ereduak, energia berdea, ekoizpena eta kontsumo arduratsua	URTARRILA	9 · asteartea	17:00 — 20:00	Eureka! Zientzia museoa	Proiektu erronkak / Ekonomia sistema	Andreu Escrivà (Zientzia dibulгатzailea)
		13 · larunbata 14 · igandea	> 9:00 > 13:30	Agotzenea (Zubiri, Nafarroa)	2. Konbibentzia asteburua. — EKIN	Joxean Hernandez eta Nerea Gonzalez (Impact Hub) / Kontsumo ereduak eragileak: gonbidatuak
		23 · asteartea	17:00 — 20:00	Eureka! Zientzia museoa	IZAN lidergoa	Verenna Hammes
4 <b>Planeta</b> BIODIBERTSITATEA ARRISKUAN Errekutso naturalak, biodibertsitatea, ura, lurralde antolamendua, urbanismoa	OTSAILA	6 · asteartea	17:00 — 20:00	Eureka! Zientzia museoa	Bioaniztasunaren galera	Aitziber Sarobe (Naturkon)
		17 · larunbata	10:00 — 14:00		IZAN eragile	Taldekiek adostutako ekimen kolektiboa
		20 · asteartea	17:00 — 20:00	Eureka! Zientzia museoa	Proiektu erronken lanketa + Lurralde antolamendua eta urbanismoa	Kalapie elkartea
5 <b>Parte-hartzea</b> IKUSLE EDO ERAGILE? Aliantzak, komunitate berdeak	MARTXOA	5 · asteartea	17:00 — 20:00	Eureka! Zientzia museoa	Proiektuen aurkezpen ekitaldia	
		16 · larunbata 17 · igandea	> 9:00 > 13:30	Uliako aterpetxea	3. Konbibentzia asteburua. — IZAN	Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa / Xabier Harlouchet (Bizi mugimendua)
		19 · asteartea	17:00 — 20:00	Nazio Batuen Local 2030 Idazkaritza (Bilbo)	Governantza maila-anitza	Asier Aranbarri (Trantsizio sozialaren eta 2030 agendaren idazkaritza) / Andoni Iriondo (Ekoliderria)
	APIRILA	13 · larunbata	17:00 — 20:00		Itxiera ekitaldia / Ekoliderren ekintza kolektiboa	

# Egitaraua

Goi-mailako formakuntza jasangarritasunean adituen eskutik. Aurrez aurreko elkarteratze saioak: hitzaldiak eta elkarrizketa gunek. Informazio gehiago webgunean.

## 5 ezagutza bloke

AURREZ-AURREKO SAIOAK



AZAROA

ABENDUA

URTARRILA

OTSAILA

MARTXOA

APIRILA

# Trebatu

## Ekin

## Izan

### › Jasangarritasuna

- Kontzeptua eta helburuak ulertu (GJH).
- Gaiak modu sistemikoan landu.
- Arazo zehatzak identifikatu.
- Tokiko irtenbideak gertutik ezagutu .

- Erantzun nahi zaion erronkak aukeratu.

- Ideaziotik prototipaziora.
- Ekolidergoa praktikan jarri (parte hartze zuzena).
- Sortutako prototipoak gizarteratu.
- Norberaren “ekolidergoaren” prospekzioa eta bide orria egin.

### › Ekiteko Lidergoa

- Lidergo ereduak eta beste Ekolider erreferenteak ezagutu.
- Norbanako hausnarketa gauzatu.
- Lidergoko kompetentzia indibidualak landu.
- Lidergoko talde kompetentziak landu.

- Eraldaketarako tresnak erronkaren irtenbiderako aplikatu.



# Lidergoa

## — Ibilbidea

### Lidergo kontzientearen ibilbidea

Ibilbide honetan, lidergo kontzientea zer den landuko dugu, gure barne-izaeran sakondu eta hausnartzearekin batera; munduak, besteek eta guk behar ditugun emaitzak sortu ahal izateko.

Prozesuaren oinarriak: Presente izan, irekia, jakin-minekoa eta ikasteko konprometitua.

Bakoitzaren jomuga zein den jakinda ikusiko dugu nola eta zer sortu dezakegun handik. Nondik sortzen dugun ikusiz.

“Izan zaitez munduan ikusi nahi duzun aldaketa.”

— GHANDI

Lidergo kontzientea lortzeko 15 konpromiso iparorratz gisan hartuko ditugu:

- 1 Ardura osoa hartu
- 2 Ikasi jakin-minaren bitartez
- 3 Sentitu sentimendu guztiak
- 4 Oneski hitz egin
- 5 Ezabatu zurrumurrua
- 6 Osotasuna praktikatu
- 7 Baloratzea sortu
- 8 Jokatu zure jenio eremuan
- 9 Gozatu bizitza jolasean eta lasai

Lidergoaren ko-erraztailea:

**Verena Hammes**

- 10 Aurkakoa esploratu
- 11 Onarpena, kontrola eta ziurtasuna barrutik sortu
- 12 Denetik nahikoa eduki
- 13 Mundua aliatu moduan sentitu
- 14 Garaipen guztientzako konponketak sortu
- 15 Irtenbidea IZAN

Lidergo kontzienteak harreman eta antolaketa prozesuetan aldaketa positiboa sortzen du. Horrela, gure barne aldaketaren bitartez, munduak behar duen eraldaketa sortuko dugu.

# Erronka proiektua

## — Ibilbidea

### Erronken ezagutza

Jasangarritasunaren alor ezberdinetan diharduten erakunde eta eragileen egiazko erronkak jaso, ikertu eta lanketan sakontzeko ibilbidea egin eragile eta erakundeetako kideekin zuzenean.

### Prototipazioa

Erronka hauen inguruan batutako taldekideen artean inpaktua duten ekimen eta ideiak sortzeko motibazioa piztu. Aukeratu-tako erronkaren inguruan sakondu, taldean ideatu eta irtenbidearen lehen prototipoa sortu elkartearekin zuzenean kolaboratuz.

### Balidazioa eta aurkezpena

Bestelako eragileekin sortutako prototipoa kontrastatu. Irtenbidea hobetu eta hartzaileekin testeatu zentzu eta inpaktu handiagoa izango duten prototipoak sortu ahal izateko. Landutako irtenbidea proiektuen diseinuan aritzen diren adituen eta publiko orokorraren aurrean aurkeztuko da.

#### Proiekturako bidelagunak

PROTOTIPAZIOA ETA PROZESUAN BIDELAGUN  
Joxean Hernandez eta Nerea Gonzalez (Impact Hub).

#### TUTORETZA

Proiektu bakoitzak erronka planteatu duen eragileetako kide baten mentoretza eta elkarlana.

#### Erronka aurkezten

Naturkon · Surfrider · Kalapie · Trantsizio sozialaren eta 2030 agendaren idazkaritza

**Proiektuaren lanketak trebakuntzan ikasitakoa praktikan jarri, talde lidergo eta lidergo eraldatzailea praktikan jarri eta taldekideekin gozatzeko aukera emango dute, ideia bat errealitate giteak ematen duen esperientzia eta ahalduntzeaz gain.**

—  
**Jasangarritasunean  
trebatu.**

—  
**Aldaketa sustatzeko  
prestatu.**

# Izan zaitez Ekolidera.

## Esperientziak bizi

Egitarautik kanpo ekintzara bideratuta dauden jarduera ezberdinetan borondatez parte hartzeko aukera.

## Saretu

Zu bezalako gazteak edota jasangarritasunaren arloan diharduten aditu eta profesionalak ezagutu. Saretu eta harremanetan jarri erronka planteatuko duten eragile eta elkarteekin zuzenean eta Kutxa Fundazioko talentuen programarekin.

## Curriculum-a aberastu

Ezagutzetatik haratago, lan esparruan asko baloratzen diren gaitasunak garatu.

# Aukera ez galtzeko arrazoi gehiago...

## Kredituak eskuratu

UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak (UIK) ikastaroaren 120 ordu akademikoak jasoko dituen ziurtagiria emango du (balio akademikoko 25 h. = ECTS kreditu 1).



## Zu izango al zara 30 gazte ekoliderretako bat?

**Guztira 30 gaztek izango dute Gazte Ekolider formakuntzan parte-hartzeko aukera.**

**20—35**  
urte tarteko gazteak

**Elebidun**  
pertsonek: euskaraz ulertzea.

Saioren  
**%80**  
ra etortzeko ahalmena

Matrikula:  
**300€**

Matrikulak barne hartzen ditu 120 orduko formakuntzako hizlari eta mentorizazioaz gain, 3 egonaldietako pentsio osoa, irteerretako desplazamenduak, aseguruak, talde ekintza eta proiektua gauzatzeko laguntza ekonomikoa eta akreditazio diploma. Ordainketa bi zatitan gauzatu daiteke.







Climate NOW,  
Homework Later!

...DER  
...ARAI...  
THERE'S  
NO PLANET

DAS KLIMA  
aussichtsloser,  
als unse  
MATHE-ABI